

# Eskolen Arteko Foroan erabilitako dinamika eta emaitzak

## Partaideak

**OROKIETA:** LH 2. zikloko 2 ikasle (4. mailako Iker Olaskoaga eta Irene Iribar) eta LH 3. zikloko 2 ikasle (6. mailako Julen Olasagasti eta Ainhoa Aiapurua).

**SALBATORE MITXELENA:** LH 2. zikloko 2 ikasle (4. mailako Manex Arruti eta Martxelo Ilarramendi) eta DBH 1. zikloko 2 ikasle (2. mailako Asier Zubiare eta Bittor Arregi).

**ANTONIANO:** LH 3. zikloko 2 ikasle (5. mailako Ibrahim Lukas eta Joseba Albeniz) eta DBH 1. zikloko 2 ikasle (1. mailako Jokin Canillas eta Azahara Etxabe).

**LA SALLE:** DBH 1. zikloko 2 ikasle (2. mailako Maddi Rodriguez eta Andrea Hamill) eta DBH 2. zikloko 2 ikasle (3. mailako Xabier Isasti eta Jenifer Álvarez).

**LIZARDI:** DBH 1. zikloko 2 ikasle (1. mailako Angello Eleizaga eta 2. mailako Julen Manterola) eta DBH 2. zikloko ikasle bat (3. mailako David Rodriguez. \* DBH 2. zikloko beste ikasle bat aurrikusi arren, ez zuen bertaraterik izan).

**OTEITZA:** 4 ikasle (1. mailako Ane Etxeberria, Mireia Aizpuru, Arantza Eizagirre eta Alexander Osa).

## Taldeen osaketa

**1 taldea:** Orokietako LH 2. zikloko 2 ikasle eta Salvatore Mitxelenako LH 2. zikloko 2 ikasle.

**2 taldea:** Orokietako LH 3. zikloko 2 ikasle eta Antonianoko LH 3. zikloko 2 ikasle.

**3 taldea:** La Salleko DBH 1. zikloko 2 ikasle eta Salvatore Mitxelenako DBH 1. zikloko 2 ikasle.

**4 taldea:** Antonianoko DBH 1. zikloko 2 ikasle eta Lizardi DBH 1. zikloko 2 ikasle.

**5 taldea:** La Salleko DBH 2. zikloko 2 ikasle eta Oteitzako 2 ikasle.

**6 taldea:** Lizardiko DBH 2. zikloko 2 ikasle eta Oteitzako 2 ikasle.

## Lan-dinamika

Herriko proposamen guztiak 6 gai ezberdinetan sailkatuta aurkeztu dira, gai bakoitzarekin loturiko proposamenak orri batean eskuratu dituztelarik (ikus "Zarauzko proposamen eta konpromezu guztiak" dokumentua).

Lan talde bakoitzak herri mailan sortu diren proposamen guztiak aztertu ditu, lehentasunak finkatuz. Horretarako, hausnarketa pertsonala eta talde lana bateratu dira.

Hasiera batean, ikasle bakoitzari gai zehatz bat jasotzen duen zerrenda eman zaio. Bertatik, 3 proposamen garrantzitsuenak aukeratu ditu. Jarraian, beste gai bat aztertu du, ikasle guztiak gai guztiak aztertu dituztelarik. Ikasle bakoitzak bere aukeraketa zirriborro-orri batean jaso du.:

Jarraian, bozkek jasotako proposamen guztiak lehentasunaren arabera mailakatu dituzte taldekideen adostasunarekin, 9 garrantzitsuenak aukeratuz. Horretarako, koloretako 9 post-it erabili ditugu talde bakoitzean (3 berde, 3 hori eta 3 laranja).

- Kolore berdea: lehentasun handiko proposamenak (3 bozka)
- Kolore horia: lehentasun ertaineko proposamenak (2 bozka)
- Kolore laranja: lehentasun txikiko proposamenak (bozka 1)

Post-it bakoitzean proposamenaren kodea (hiizkia-zenbakia) idatzi ondoren, paretan itsatsita zeuden kartulina handitan gai bakoitzari dagozkion post-itak kokatu dira.

Gai bakoitzeko kartulina bat eskaini da eta bertan, lehentasunaren arabera sailkatu diren talde bakoitzeko proposamen garrantzitsuenak itsatsi dituzte ikasleek

Jarraian, kartulina bakoitzaren irakurketa egin da. Horretarako, kartulina bakoitza talde bati luzatu zaio eta taldekideen artean itsatsitako post-itak aztertu dira. Hau da, post-itetan zeuden proposamen kodeak zerrendatu dira, jasotako puntuazioaren arabera (berdeak=3, horia=2, laranja=1).

Talde bakoitzak gai bakoitzari loturiko proposamenak sailkatu ondoren, guztien artean zerrenda orokorra osatu da:

1. puntuazio altuena.
2. bigarren puntuazio altuena.
3. hirugarren puntuazio altuena.
4. ...
5. ...
6. ...

Azkenik, eta proposamenen kopurua murriztearren, 3 bozka lorturiko proposamenak elkarlotzeko saiakera egin da talde bakoitzean.

## **Emaizak (Udalbatzarrean aurkeztuko diren 17 proposamenak)**

7 bozka: **Zuhaitz bat mozten denean beste bat landatu** (basoa eta larrea gaia).

6 bozka: **Bizikleta alokairuen zerbitzua jarri** (padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaia).

5 bozka: **Duna: Biztanleria handiketa izan arren dunetako eremuak ez erabili (gizakiak lurralde asko hartu ditu eta animalia askoren habitatak hartu ditu)** (hondartza, itsasoa eta duna gaia).

4 bozka: **Iñurritzan golf zelaiak ureztatzen direnean biotopoko putzuaren ur maila nabarmenki jaisten da. Batzuetan ia lehortzeraino, garaiaren eta egoeraren arabera. Uraren erabileraren eta mailaren kontrola eramatea proposatzen dugu. Guzti honek hegazti migratzaileen komunitatean eragina izango badu, galdera da, nola egin aurre egoera honi? Zein izango litzateke irtenbide egokia? Irtenbide posibleak (padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaia):**

- A) Egoera ikusirik, gutxienez saiakera bat egin beharko litzateke golfa tokiz mugitzeko eta bertan errekonstruzio lanak egin dunak bihurtzeko bere landaretza eta bizidunekin. Gure ustez golf zelaiak Asti ingurura mugitu beharko litzateke, hau kirolarekin loturik baitago.**
- B) Beste aukera bat, ura beste toki batetik hartzea kontutan izanda horrek duen kostea.**

4 bozka: **Padura eta dunetako bidean kartel gehiago eta modu deigarrian jende askok ez baitaki ekosistema hauek duten garrantzia** (bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaia).

4 bozka: **Hondakinaren kudeaketan birziklapen tasa areagotzeko atez ateko bilketa ez den beste alternatibaren bat dagoen aztertzea; adibidez: sentsibilizazio kanpaina gehiago, kontenedoretan txip modukoren bat jartzea,...** (hondakinak eta kutsadura gaia).

4 bozka: **Etxeetan gaikako bilketa egiteko konpartimentu ezberdinetako zaborrontzi egokiak diseinatu eta erosteko erraztasunak ematea** (hondakinak eta kutsadura gaia).

3 bozka: **Ibaia: Zaborra botatzea debekatzea isuna jarriz hau betetzen ez duenari** (padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaia).

3 bozka: **Gauetz eraikuntzak ez argizatzea** (padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaia).

3 bozka: **Kaleak txukun mantentzea** (hondakinak eta kutsadura gaia).

3 bozka: **Akuiferoa: Zarauzko herrigunea akuifero baten gainean dago. Gainazalean dagoen Zarauzko paisaiaren azpian hondarrez osatutako masa bat dago iragazgaitza den beste arrozkako masa baten gainean. Hondar horretan dagoen urak osatzen du Zarauzko akuiferoa eta ia herri guztiko eremuan lauan kokatua dago. Zarauzko herriaren balore bat izanik guzti honetaz ezer gutxi dakigu herritarrok. Akuiferoa dinamikoa da, hots, daukan ura ez dago geldirik. Zelaietatik iragazten den urak itsasoranzko ibilbidea egiten du, baina sartzen ez denean ur fluxua alderantzizkoa da eta honek akuiferoaren ura gazitzea dakar. Zarauzko guneen gainazalean asfaltatzeak, erortzen den euri ura kolektoreetara bideratzeaketa behar baino ur gehiago ateratzeak akuiferoaren ohiko portaera aldatzea dakar (Bioaniztasuna orokorra, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaia).**

3 bozka: **Santa Barbara: Baso horretan pinu asko dago. Bertako zuhaitzak landatzea proposatzen dugu** (basoa eta larrea gaia).

3 bozka: **Larrea: Pestizidak, fungizidak eta herbizidak badira eragileak, debekatzea eta nekazariei produktu eramangarriago batzuk aurkeztea** (basoa eta larrea gaia).

*3 bozka lorturiko beste proposamen hauek binaka elkarlotu dira, proposamen bakarrean bilakatuz:*

3 bozka: **Iñurritzako ibilbidean zehar maiz egiten dugu topo txakur kakekin. Jabeak arau hori ez badu errespetatzen zigorra ezarriko zaio** (hondartza, itsasoa eta duna gaia).

- Duna: Iñurritzako ibilbidean zehar maiz egiten dugu topo txakur kakekin, beraien jabeek arauak errespetatu behar dituzte (hondartza, itsasoa eta duna gaia).
- Zigorrek ezartzea babestutako lekuetan dauden arauak ez errespetatzeagatik (hondartza, itsasoa eta duna gaia).

3 bozka: **Mutxio eta Vista Alegrek zenbait gabezi dituzte: Vista Alegren garbitasuna areagotu (txakur kakak biltzeko poltsak) eta Mutxion auzolana bultzatu** (basoa eta larrea gaia).

- Mutxio: Oso zikina zegoela ikusi genuen. Zaborontzirik ez dago. Auzolanaren bitartez ingurua garbitzea proposatzen dugu (basoa eta larrea gaia).
- Vista Alegre: parkean zaborontzi gutxi daude. Txakurren kakak biltzeko poltsak falta ziren (basoa eta larrea gaia).

3 bozka: **Zabor-ontzi gehiago jarri eta hauek erabiltzen ez dituenari isuna jarri** (Bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaia).

- Zaborra botatzen duenari isuna jarri (Bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaia).
- Zabor-ontzi gehiago jarri (Bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaia).

3 bozka: **Natura gehiago zaindu gutxiago ehizatuz** (Bioaniztasuna orokorrak, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaia).

- Natura errespetatu eta zaindu, denon ardura da (Bioaniztasuna orokorrak, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaia).
- Gutxiago ehizatu (Bioaniztasuna orokorrak, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaia).

**Proposamenen banaketa udalbatzarrean aurkezteko** (proposamenen banaketa ere gaika egitea erabaki da).

**OTEITZA:** hondartza, itsasoa eta duna gaiaren inguruko proposamenak.

**SALBATORE MITXELENA:** basoa eta larrea gaiaren inguruko proposamenak.

**ANTONIANO:** padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaiaren inguruko proposamenak.

**LIZARDI:** bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaiaren inguruko proposamenak.

**OROKIETA:** bioaniztasuna orokorrak, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaiaren inguruko proposamenak.

**LA SALLE:** hondakinak eta kutsadura gaiaren inguruko proposamenak.

*Beraz, ikastetxe bakoitzak honako proposamenak aurkeztuko ditu udalbatzarrean:*

**OTEITZA:** hondartza, itsasoa eta duna gaiaren inguruko proposamenak

- **Duna:** Biztanleria handiketa izan arren dunetako eremuak ez erabili (gizakiak lurralde asko hartu ditu eta animalia askoren habitatak hartu ditu).
- **Iñurritzako ibilbidean zehar maiz egiten dugu topo txakur kakekin. Jabeak arau hori ez badu errespetatzen zigorra ezarriko zaio.**

**SALBATORE MITXELENA:** basoa eta larrea gaiaren inguruko proposamenak.

- **Zuhaitz bat mozten denean beste bat landatu.**
- **Santa Barbara:** Baso horretan pinu asko dago. Bertako zuhaitzak landatzea proposatzen dugu.
- **Larrea:** Pestizidak, fungizidak eta herbizidak badira eragileak, debekatzea eta nekazariei produktu eramangarriago batzuk aurkeztea.
- **Mutxio eta Vista Alegrek zenbait gabezi dituzte:** Vista Alegren garbitasuna areagotu (txakur kakak biltzeko poltsak) eta Mutxion auzolana bultzatu.

**ANTONIANO:** padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna gaiaren inguruko proposamenak.

- **Bizikleta alokairuen zerbitzua jarri.**
- **Iñurritzan golf zelaiak ureztatzen direnean biotopoko putzuaren ur maila nabarmenki jaisten da. Batzuetan ia lehortzeraino, garaiaren eta egoeraren arabera. Uraren erabileraren eta mailaren kontrola eramatea proposatzen dugu. Guzti honek hegazti migratzaileen komunitatean eragina izango badu, galdera da, nola egin aurre egoera honi? Zein izango litzateke irtenbide egokia? Irtenbide posibleak:  
A) Egoera ikusirik, gutxienez saiakera bat egin beharko litzateke golfa tokiz mugitzeko eta bertan errehabilitazio lanak egin dunak bihurtzeko bere landaretza eta bizidunekin. Gure ustez golf zelaiak Asti ingurura mugitu beharko litzateke, hau kirolarekin loturik baitago.  
B) Beste aukera bat, ura beste toki batetik hartzea kontutan izanda horrek duen kostea.**
- **Ibaia:** Zaborra botatzea debekatzea isuna jarriz hau betetzen ez duenari.
- **Gauetz eraikuntzak ez argizatzea.**

**LIZARDI:** bioaniztasuna orokorrak, informazioa eta sentsibilizazioa gaiaren inguruko proposamenak.

- Padura eta dunetako bidean kartel gehiago eta modu deigarrian jende askok ez baitaki ekosistema hauek duten garrantzia.
- Zabor-ontzi gehiago jarri eta hauek erabiltzen ez dituenari isuna jarri.

**OROKIETA:** bioaniztasuna orokorrak, Natura zaindu, bioaniztasuna ugaritu eta kontrola gaiaren inguruko proposamenak.

- **Akuiferoa:** Zarauzko herrigunea akuifero baten gainean dago. Gainazalean dagoen Zarauzko paisaiaren azpian hondarrez osatutako masa bat dago iragazgaitza den beste arrokozko masa baten gainean. Hondar horretan dagoen urak osatzen du Zarauzko akuiferoa eta ia herri guztiko eremuan lauan kokatua dago. Zarauzko herriaren balore bat izanik guzti honetaz ezer gutxi dakigu herritarrok. Akuiferoa dinamikoa da, hots, daukan ura ez dago geldirik. Zelaietatik iragazten den urak itsasoranzko ibilbidea egiten du, baina sartzen ez denean ur fluxua alderantzizkoa da eta honek akuiferoaren ura gazitzea dakar. Zarauzko guneen gainazalean asfaltatzeak, erortzen den euri ura kolektoreetara bideratzeaketa behar baino ur gehiago ateratzeak akuiferoaren ohiko portaera aldatzea dakar.
- Natura gehiago zaindu gutxiago ehizatuz.

**LA SALLE:** hondakinak eta kutsadura gaiaren inguruko proposamenak.

- Hondakinen kudeaketan birziklapen tasa areagotzeko atez ateko bilketa ez den beste alternatibaren bat dagoen aztertzea; adibidez: sentsibilizazio kanpaina gehiago, kontenedoretan txip modukoren bat jartzea,...
- Etxeetan gaikako bilketa egiteko konpartimentu ezberdinenetako zaborrontzi egokiak diseinatu eta erosteko erraztasunak ematea.
- Kaleak txukun mantentzea.